

# Uxue Juarez

HITZAK POSPOLO



## URETARA HARRI BAT BOTATZEN DUZUNEAN SORTZEN DIREN UHINGORIEK DIRA POEMA



Batxilergoan tutore izan nuenetik ia 10 urte pasa direla elkartu naiz Uxue Juarezekin Ur Mara museoko Toureau etxolan (Alkiza), pagoez eta Koldobika Jauregiren eskulturez inguratutik. Autoritate segitzen du izaten niretzat Uxuek, baina beste zentzu batean orain. Aurpegian irribarre zabala eta motxilan kopa menstrualala, ur botila eta idazteko koadernoak dakartza.

 AMETS ARANGUREN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### Zergatik gaude hemen?

Alkizako Ur Mara museoko Toureau etxolan gaude. Elena Carajaville bitxigileak eta Koldobika Jauregi eskultoreak proiektu bat muntatu zuten artea eta naturaren arteko erlazioa lantzeko eta tailerrak, hitzaldiak, antzerkiak eta kontzertuak egin izan dituzte hemen. Sormen beka bat ere ematen dute, *Alkizako Sormenaren Kabia beka*, eta horregatik nago ni hemen. Justu etxola honetara etortzen den jendea hitzaren eta naturaren arteko harremana topatu eta islatzen saiatzera dator.

Semearekin etorri naiz eta hiru aste emango ditugu hemen, Alkizako baso eskolan matrikulatu dut, horrela goizez

eta gauez idatz dezaket eta arratsaldetan amarena egiten dut.

### Pagadi erdian gaude orain. Txori batzuk eta haizea besterik ez dira entzuten.

Haizeak aste guztian zehar lagundu gaitu eta eromena izan da. Zuhaitzak erori dira, adarrak hautsi dira... Hirian zaudeanean eta hona naturari buruz idaztera etorriko zarela pentsatzen duzunean ez duzu kontuan hartzen naturaren B aurpegi hori, eta hori ere bada lantzen ari naizen gaietako bat. Natura ezezagun edo piztia gisa: zer ezagutzen dugun, zer ez, zein lege duen, ea uzten dugun sartzen eta ateratzen, animalien presentzia...

### Semearekin etorri zarela esan didazu. Nola bizi duzu hori?

Hasieran biontzako aukera gisa ikusten nuen. Ingrid Christensen idazleari irakurri nion behin, bekak jasotzen zituenean ez zuela aukerarik izaten haur txikia inon uzteko. Parisera joatea egokitu zitzaion batean modu honetan planteatu zuen egonaldia: berak goizetan idazten zuen bitartean, Pariseko mapa ematen zion bere semeari eta semea zen, mapari erreparatuz, arratsaldetako egitaraua prestatuko zuena. Hori go-goan nuela pentsatu nuen goizetarako plan bat prestatuko nuela berarentzat ni idazten egongo nintzen tarterako. Baina gero antsietatea sartu zitzaidan







# Uxue Juarez Gaztelu

IRUÑEA, 1981



Filologia hispanikoko ikasketak egin eta jarraian hasi zen irakaskuntzan lanean. Irakasle lanak idazketarekin uztartzen aritu izan da beti eta urte batzuk dira ama ere badela. Poesia eta haurrentzako ipuinak idatzi baditu ere, testu hibridoak dira gehien interesatzen zaizkionak. Iruñeko institutu batean dabil lanean egun, gaztelania eta literatura ikasgaiak ematen.

horren kontrako argudio asko zetozkidalako burura.

Haurra Alkizako baso eskolan matrikulatzeko aukera atera zen orduan eta etortzea erabaki nuen. Hala ere, hasiera gazi-gozoa izan da. Oso idealizatua nuen plana, baina amatasunaren kontuarekin une oro ari zara kanpoko kritikak jasotzen eta horrek zuk barruan izan ditzakezun kezkek esnatzen ditu. Amatasuna eta errudun sentitzearena beti doaz eskutik. Neurekoia sentitzen naiz askotan, idazkeraren espazioa babestu nahi dudalako, baina aldi berean nire umea ere bai. Egunero bizi dut lehia hori.

**Idazlea zara, baina irakaslea ere bai. Hiru asteko baimena eskatu duzu hemen egon ahal izateko. Aski dira hiru aste?**

Ez. Lehenengo astean egiten duzuna da lurreratze moduko bat. Burua garbitu behar duzu aste horretan zehar, edo hustu. Eta horretan naturak berehala laguntzen zaitu. Baina buruak bere martxa du eta motela da. Eta gero beste bi asteetan egiten duzuna da disparadoreak topatu. Ni egiten ari naizena

da koadernoan etortzen zaidan guztia apuntatu. Pasatzen dena da idazkera eta antsietatea beti doazela eskutik nire kasuan. Nik idatzi nahi dut dena ja [barreak]. Baina egiten ari naizena da pixka bat baretu, ideiak apuntatu eta jakin hau datorren urtean zehar garatuko dudala. Baina bai, faltan sumatzen dut edukitzea, adibidez, urte oso bat orain buruan daukadan guztia garatzeko. Eta hor frustrazioa sortzen zait.

Gainera, proiektu desberdinak pizten zaizkit aldi berean eta oso zaila egiten zait soilik batean zentratzea. Bat garatzen ari naizelarik besterako ideiak sortzen zaizkit, zubi gisa, batak bestea esnarazten du.

**Irakaskuntzak denbora asko hartzen du zure bizitzan. Ogibide horrek ematen dizu lasaitasun ekonomikoaz haragoko zerbait?**

**Uzteza pentsatu al duzu inoiz?** Urtebeteko eszedentzia hartu nuen horren inguruan pentsatzeko. Mundua nola dagoen ikusita, kezka sozial handia dut. Uste dut bakoitzak bilatu behar

duela bere modua gizartean eragiteko eta nik horretarako topatu dudan bidea irakaskuntza izan da. Klasean nagoeanean ikusten dut zeinen gogorra den nerabeentzat mundua. Ez dira inozoak, kontziente dira guztiaz, nahiz eta oraindik batzuek ez dakiten pentsamendua ongi egituratzen edo azaltzen. Nik hor eragiteko dudan tartea probestu nahi dut eta umoretik egitea erabaki dut.

Bueltan jasotzen ditut maitasuna, alaitasuna eta feedbacka. Idazlearen mundua oso egozentriko eta murriztua izan daiteke eta ikasleek errealitatera ekartzen naute, mundua nola dagoen erakusten didate. Eta hori da hitzarekin lantzea interesatzen zaidana: mundua nola dagoen jaso, hori iragazi eta, obraren bitartez, proposamenak edo galderak itzuli, denon artean pentsa dezagun.

**Zure ikasleei galdetuko banie zein irakasle mota zaren?**

[Barrezka] Batzuek “eroa” esanen lizukete, seguru. Beste batzuek kaotikoa naizela eta gauza arraroak egiten ditudala, eta beste batzuek gustura daudela. Eta matxiruloek “femina-zia” naizela. Eta justu hor da sartu behar zarenean.

“**Arreta eta denbora behar dira pentsamendua finkatzeko eta justu kontrako noranzkoan goaz”**

**Nork du marjina handiagoa jendartean eragiteko: Uxue irakasleak edo Uxue idazleak?**

Uxue amak, irakasleak eta lagunak.

**Asko entzuten da azken urteetan maila akademikoa jaitsi dela.**

Desinformazioak inguratuta gaude eta gero eta pasiboagoak gara. Nago geroz eta zailagoa dela kritikoa izatea. Sentitzen dut ona versus txarra dikotomian bizi garela eta hori ez da horrela, gris asko dago eta ezagutu behar dira. Pentsamoldearen garapenaren kontra doa hori eta aberastasun ezak pentsamenduaren pobrezia dakar.

Mundu globalizatuak duen tresna oso eroso bat da pantailena. Pantailek ez dizute aktibo izaten uzten, aplikazioak oso intuitiboak dira eta kontsumoa areagotzen doa pentsamendua geldirik dagoen bitartean.

Lanaren mundua ere konplexua da. Harremanak ere pantailek mediatuak dira eta geroz eta gutxiago gaude gure haurrekin. Denok gabiltza super nekatuta. *Multitask* gara. Arreta eta



denbora behar dira pentsamendua finkatzeko eta justu kontrako noranzkoan goaz. Irakurketak lasaitasuna behar du eta erritmo motela.

#### Duela gutxi idatzi du Maialen Akizuk arreta zailtasunari buruz *Berria*-n.

Ados Maialenekin. Arreta pizteko galdera onak ere planteatu behar dira eta ez

diogu horiek pentsatzeari denborarik eskaintzen. Azalpenak eman beharrean, galderak planteatu. Infantilizazioa ere badago irakasleen partetik ikasleekiko.

#### Sumatzen duzu aldaketarik arretari dagokionez zu ikasle zinetik hona?

Bai. Nik orain zerbait azaltzen dudanean ahal bezain laburren azaltzen dut. Gero,

agian, ikasle batek galdera bat egiten dit eta nik erantzuna bukatu baino lehen deskonektatzen du. Hortik minutu batera beste batek galdera bera egiten ahal dit eta horrela bost aldiz. Hori lehen ez zen gertatzen. Eta ez da haien errua, noski, baina kezagarria da.

#### Zer sentitu behar duzu idatzitakoa irakurri eta "honekin aurrera" esan ahal izateko?

Normalean idatzi dudana pilatu eta lagun bati pasatzen diot, Izaskun Graciarri. Bera ere idazlea da eta erreferentzia gisa gustatzen zait bere feedbacka jasotzea. Beste batzuetan laginak ere bidaltzen dizkiet inguruko lagunei. Poema bat bukatutzat emateko sentitu behar dut poema guztian zehar mantentzen den tentsio bat dagoela eta sekretu bat gordetzen duela. Hori eta sentitzen ahal den itxiera bat. Eta ez du zertan poemaren bukaera izan, itxiera egon daiteke lehenago. Gauza bera hasierarekin. Bada teoria bat, ez naiz oroitzen zein izen duen, esaten duena poema baten hasiera beti dagoela hasierako lerroak baino pixka bat beranduago. Hasierako lerroak burua husten joateko besterik ez dira baliagarriak. Eta bueno, idazten ere

Azarokoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.





laguntzen dute, baina gero hortik atera behar duzu poema, eskultura moldetik bezala.

Aipatu dudan tentsioa da zuk dakizuna baina idazten ez duzuna. Idatziko bazenu, irakurlea tuntun gisa tratatuko zen nuke eta beti izan behar da errespetuzkoa irakurlearekiko harremana, maila berean daude biak. Esaten ez dena ez da bakarrik esaten ez dena baina zuk badakizuna, baizik eta hutsik uzten duzun espazio horretan besteak bere bagajearekin irakurtzen duena.

Uretara harri bat botatzen duzuean sortzen diren uhin horiek dira poema. Eta harriagatik galdetu eta hori azaltzen duzun momentuan suntsitzen duzu poema.

### **Haurrendako idatzi duzu, baina helduendako ere bai.**

Bai, helduendako poesiarekin hasi nintzen, baina segituan egin nuen salto testu hibridoetara. Gustatzen zait diziplina desberdinak uztartzea. *Casi Ciervos* izeneko liburua atera nuen, argazki analogikoak dituena, artista eta *supermoloia* izateko, eta saiakeretatik ateratako aipuak, poemak eta bestelako testuen zatiak biltzen ditu. Hori da gehien interesatzen zaidana, azken finean hibridoa dena ez baita hain erraz sailkatzeten. Liburu hau ateratzean gogoan dut nola liburu-dendatara joaten nintzenez ez zuten jakiten zein apalategitan jarri eta hori ja politikoa iruditzen zait.

Beste artista batzuekin lan egitea ere gustatzen zait. Argazkilari batekin aritu naiz lanean berriki, musikari batekin

“

**Hori da hitzarekin lantzea interesatzen zaidana: mundua nola dagoen jaso, hori iragazi eta, obraren bitartez, proposamenak edo galderak itzuli”**

nabil orain... Bestearen diskurtsoak nora eramaten zaituen ikustea gustatzen zait. Eta horrek ahalbidetzen dit ere kolektiboki aritzea.

**Esaten dute idazlearena dela jardun artistikorik bakartiena.**

Hori gezurra da. Hasteko, zure buruan dauden beste aholtsak dituzu: beste idazleenak, zure inguruan dauden pertsonenak, imajinatzen dituzun egoerenak... Eta gero liburu bat ateratzeko editorea dago, zuzentzailea... Edo nire kasuan orain musikaria, argazkilaria... Inprentako pertsona ere hor dago, baita publikoa ere.

**Lehen aipatu duzu hona [Alkizara] etortzea euskaran murgiltzea izan dela. Azkenaldian lantzen ibili zaren testu batean gaztelania eta euskara tartekatzen dituzu.**

Bai. Orain arte oso autoestimu baxua izan dut euskaraz idazteko. Karrera gaztelaniaz egin nuen eta jariotasun handia galdu nuen euskaraz. Eta, jakina, gaztelaniaz idazten hasi nintzenez konturatu nintzen gaztelaniaz nahi nuena egin nezakeela eta euskaraz ez. Oso mugatua sentitzen nintzen.

Orduan irakurri nuen Agota Kristofen *Analfabetoa* idazle liburua, zeinetan idazleak kontatzen duen nola bere ama hizkuntza beste bat izanda ere, frantsesa ikasi eta hizkuntza horretan zaituen mugek beste bide batzuk topatzen laguntzen zioten. Konturatu nintzen

gaztelaniaz planteatuko ez nituzkeen bide batzuk planteatzeko zizkidatela euskaraz nituen mugek. Gainera, nire semea jaio zen orduan eta harekin euskaraz egiten hasi nintzenez, euskarak hartu zituen beste leku batzuk ere nire bizitzan. Horregatik diot amatasuna eta bizitza lotuta daudela idazketarekin. Euskaraz aritzen diren beste idazle batzuekin testuak elkarbanatzen hasi nintzen orduan eta hor ikusi nuen euskaraz ere idatz nezakeela.

### **Harremanak dira askotan zure testuetako protagonistak.**

Bai. Azken boladan idazten ari naizen testuetan asko agertzen dira lagunak eta *protobikoteak*, inoiz bikote izatera heltzen ez direnak. Azken hori asko interesatzen zaidan gaia da, uste dudalako momentu honetan nire belaunaldiko jendea, behintzat, hankaz gora dagoela zentzu horretan.

Oso eredu tradizionalatik gatoz eta bat-batean ligatzeko aplikazioen mundua ezagutu dugu. Eredu horrek –familia eta hori dena– ez duela funtzionatzen ikusi dugu, baina aldi berean horiek izan dira beti gure erreferenteak, eta orain, 40 urteak pasa ditugula, kontsumismoarekin eta egitura faltarekin egin dugu topo. Ez dakit ongi esaten konpromisoa zer den... Akordioak egitea agian. Eta beldur handia ikusten dut horrekiko.

Hemen denok dugu gure motxilatxoia eta aplikazioen munduan koldarkeria areagotzen da, *ghosting*-a eta hori dena, badakizu. Gauza hauetako asko ez ditut ulertzen eta horren denaren aurrean nik dudak tresna idazketa denez, ba hortxe dago dena. Inizialekin batzuetan eta ize- nekin beste batzuetan.

### **Gauzak ulertzeko ere balio dizu orduan idazketak.**

Bai, erritu bat da. Itxierekin laguntzen dit, adibidez. Mendebaldeko jendarteak galdu du erriturako joera eta asko esaten du horrek. Edozein dolu prozesu behar ditu itxierak pasa ahal izateko. Gaur egun erraztasun handiz uzten dira gauzak itxi gabe eta hori oso bortitza da. Horretarako ere balio dit idazketak, erritu gisa. Erantzunak falta zaizkizunean, zuk asmatu behar dituzu.

Honek guztiak irakatsi dit bai irakasle, bai ama eta bai lagun gisa inguruan ditudan gizon proiektuak, nire semea tarteko, hezi behar ditudala ardura emozionala garatu ahal izateko. Hori da asumitu nahi dudana borroka bat. ●